

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2022 Foru dekretua, apirilaren 26koa. Onestea Kultura Eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileak

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez, Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak onetsi ziren, eta gerora, aldatu egin ziren, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez.

Aipatutako foru dekretuaren lehenengo oinarrian, Kultura eta Kirol Sailak emandako sariak dekretuaren aplikazio eremutik kanpo uzten ziren. Berariazko araubidea dutelako geratu ziren sariak 50/2019 Foru Dekretutik kanpo. Izan ere, sariak ezaugarri bereziak dituzte: funtsean, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko prozedura baino prozedura errazagoa. Horrez gain, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezartzen duenez, onuradunak alde aurretik eskatu gabe ematen diren sariak foru arau horren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren laugarren xedapen iragankorrak hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein arlotako sariak emateko araubide berezi bat ezartzeko betebeharra ezartzen duenez, beharrezkoa da oinarri orokor batzuk arautzea Kultura eta Kirol Sailari esleitutako eginkizunen berezko gaietan sor daitezkeen sariak emateko.

Arabako Foru Aldundiaren 2022ko Urteko Araugintza Planean jasota dago Kultura Zuzendaritzaren eskumenen esparruan ematen diren literatura sarien oinarriak arautzen dituen foru dekretua onestea. Hala ere, komenigarritzat jo da araudi horretan sartzea Kultura eta Kirol Sailari esleitutako eginkizunak betez deitzen diren beste sari eta lehiaketa batzuk ere.

Agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako arauketa onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauek onesten ditu: xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eta genero inpaktuari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza jarraibideak.

Halaber, oinarri arautzaile orokorrak bat datoz Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko idazketarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari eta sexu arrazolengatik edozein motatako diskriminazio berariaz debekatzeari dagokienez.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Kultura eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileak. Oinarri horiek foru dekretu honen eranskinean daude jasota.

Bigarrena. ALHAOn argitara daitezela agintzea.

Azken xedapen bakarra. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

Eranskina

Kultura Eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileak

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio eremua

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen sariak arautzeko oinarri orokorrak ezartzen ditu foru dekretu honek. Sari horiek zuzkidura ekonomikoa izan dezakete edo ez; sailaren aurrekontu kredituen kontura ordainduko dira, eta sailaren eskumenen esparruan deialdiak egiteko izan behar dira.

2. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira onuradunak aldeztatik eskatu gabe ematen diren sariak.

3. Oinarri orokor hauek sari deialdi hauei aplikatuko zaizkie:

Literatura sariak.

- San Prudentzioren eta Estibalizko Andra Mariaren omenezko Arabako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.

- Kultura eta Kirol Sailari emandako eginkizunekin loturiko beste deialdi, sari eta lehiaketa batzuk, oinarri arautzaile berezirik behar ez dutenak.

Bigarrena. Deialdien edukia

Deialdi bakoitzak honako hauek jasotzeko behar ditu:

a. Zein xedapenetan jasotzen diren oinarri arautzaileak eta ALHAOren zein aletan argitaratu diren.

b. Saria zein aurrekontu kredituri egotziko zaion eta sariaren zenbatekoa guztira.

c. Sariaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Saria norgehiagoka bidez emango dela.

e. Hautagaien betekizunak eta horiek egiaztatze modua.

f. Hautagaitzak aurkezteko epea eta modua.

g. Zer organok duten prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena.

h. Eskaerak balioesteko irizpideak. Irizpide horiek objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publikotasuna eta bereizkeriarik eza bermatu behar dituzte sariak ematean.

i. Ebazteko epea.

j. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen duen edo ez, eta zein organori jarri behar zaion errekurtsua.

k. Nola jakinarazi edo argitaratuko den, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean APAPEL) 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenaren arabera.

l. Beste sari batzuekiko bateragarritasuna.

m. Saria ematek eratorritako betebeharrak eta konpromisoak.

n. Epaimahaiaren funtzionamendua, oinarri orokor hauetan aurreikusten ez diren gaiei dagokienez.

Hirugarrena. Printzipio orokorrak

Ematen diren sariak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.

- Efizientzia, Diputatu Nagusiaren Sailaren baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko orduan.

- Sexuen arteko aukera berdintasuna sustatzea, desberdintasunak ezabatuz eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuz.

- Euskara sustatzea.

Laugarrena. Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna

Sarien deialdiek bat etorri behar dute Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko idazketarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin.

Zehazki, sariaren deialdian berdintasun neurri hauek jaso beharko dira, betiere proportzionatuak izango direnak eta deialdiaren xede nagusiarekin zerikusia izango dutenak:

- Deialdian sortutako dokumentazioak eta publizitateak ikusizko eta idatzizko hizkuntza ez-sexista bermatu beharko du.

- Ezingo zaio inolako saririk eman sexuaren ziozko bereizkeria egiten duen ezein eskabideri.

- Ekintza positiboko neurriak hartu ahal izango dira emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektuala sustatzeko, eta emakumeek eta gizonen berdintasunez parte hartzea bultzatuko da emakumeak gutxi ordezkatuta dauden esparruetan.

- Deialdiaren baldintzek horretarako aukera ematen badute, epaimahaiak parte hartzaileen generoa jakin gabe baloratuko ditu eskaerak, eskaera horiek anonimoak izateko prozesu baten bidez.

- Sariaren edo lehiaketaren deialdia sustatzen duen zerbitzuak saritutako pertsonen eta parte hartzaileen buruzko informazioa jaso beharko du, sexuaren arabera bereizita, desberdintasun esanguratsuak identifikatzeko eta jarduera eremuan egon daitezkeen genero arrakalak aztertzeko.

Bosgarrena. Onuradunen betekizun orokorrak

1. Onuradun izan ahalko dira dirulaguntza emateko oinarri den egoeran dauden pertsonak edo entitateak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako inguruabarrak betetzen dituztenak, beren izaera juridikoa edozein dela ere.

2. Honako pertsona eta erakunde hauek ezingo dira onuradun izan:

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko idazketaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko diskriminazioa egiteagatik zehapen administratiboa edo penala jaso dutenak.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan 2. apartatuan jasotako egoeraren batean daudenak, salbu eta sariaren izaera dela-eta berariazko araudiak salbuespena ezartzen badu.

Seigarrena. Hautagaitzak aurkeztea

1. Deialdi bakoitzak hautagaitzak aurkezteko modua ezarriko du, APAPELen ezarritakoari kalterik egin gabe.

2. Hautagaitzak aurkezteko epea deialdi bakoitzak ezartzen duena izango da, eta ezingo da hamabost (15) egun baliodunetik beherakoa izan, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3. Aurkeztutako hautagaitzek beharrezko baldintzak betetzen ez badituzte, Kultura eta Kirol Sailak hamar eguneko epea emango die interesdunei akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Eta jakinaraziko die hala egiten ez badute eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

4. Saria jasotzeko hautagaitzak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan eta dagokion deialdian ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

Zazpigarrena. Prozedura izapidetzea

1. Prozedura izapidetzeko eskumena izango du sariaren deialdia izapidetzen duen Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko unitate organikoak.

2. Eskabideak baloratzeko, epaimahai bat eratuko da, gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera. Epaimahaikideak Kultura eta Kirol Saileko titularrak izendatuko ditu, eta saileko zuzendaritza bakoitzak proposatuko, gaiaren arabera sariaren xede diren jardueretan ospe handia duten pertsonen artean. Horrela, epaimahaiaren egokitasuna, gaitasuna eta independentzia ahalik eta gehien bermatuko dira.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko idazketaren 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sariak emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, eta eduki beharrezko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute kideek. Lege horren arabera, lau kideetik gorako epaimahaietan edo antzeko organoetan ordezkaritza orekatua dagoela joko da sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badu, eta gainerakoetan, berriz, bi sexuak ordezkaturik badaude.

Epaimahaia osatzen duten pertsonak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoien eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdian ezarritako irizpideen arabera eskabideak baloratzeaz bestelako helburu baterako, eta ebazpen proposamena egin ondoren instrukzio espediente guztiak suntsitu edo prozeduraren instrukzio organoari itzuliko dizkiotela, baldin eta jatorrizko espedienteak badira.

3. Epaimahaiburua gaiaren arabera eskumena duen zuzendaria izango da, eta beste pertsona bati eskuordetu ahal izango dio kargua. Halaber, epaimahaiburuak saileko funtzionario bat izendatuko du epaimahaiko idazkari izan dadin. Idazkariak hitza izango du, baina ezingo du botorik eman.

4. Epaimahaikideen izenak haien izendapena ALHAOn argitaratuz zabalduko dira.

5. Epaimahaiak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako hautagaitzak, eta txosten bat egingo du, non zehaztuko baitu horien ebaluazioaren emaitza eta, hala badagokio, lehentasun hurrenkera. Epaimahaiak instrukzio organoari igorriko dio txostena. Organo horrek behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, epaimahaiaren balorazioaren arabera, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

6. Emandako botoen gehiengo soil ez hartuko dira erabakiak, eta gerta daitezkeen berdinke-tak epaimahaiburuak ebatzi ahal izango ditu. Idazkariak adosten diren jarduketara eta erabaki guztien akta egingo du, eta sariaren epaitza zein irizpen arrazoitutan oinarritzen den agertu beharko da.

7. Epaimahaiak deialdia bete gabe uztea proposa dezake, arrazoituta.

Zortzigarrena. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagozkion ebazpenak emango ditu deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehieneko epea igarotakoan berariazko ebazpenik eman eta argitaratu ez bada, aurkeztutako hautagaitzak ezetsizat eta deialdia bete gabekotzat joko dira.

2. Epaitza banaka jakinaraziko zaie sarituei, eta ALHAOn argitaratuko da.

3. Saria emateko ebazpenak, saritutako eskabidea edo eskabideak jasotzeaz gain, horien zerrenda ordenatua ere jaso ahal izango du. Onuradunen batek sariari uko egiten badio, saria ematen duen organoak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, saria lehentasun ordenan hurrengoari ematea.

Bederatzigarrena. Saria ematea

1. Saria emateko ebazpena hartu ondoren eman edo ordainduko da saria, sarituek onartu ondoren. Alde horretatik, onartu egin dela ulertuko da, baldin eta, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hamar eguneko epean, onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio sariari.

2. Emandako sariaren banaketa horretarako deitutako ekitaldi publiko batean edo batzuetan egin ahal izango da. Ekitaldi horretan hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 57/2019 Foru Dekretuaren 6. irizpidean jasotakoaren arabera.

Hamargarrena. Jabetza intelektualeko eskubideak

Deialdi bakoitzak sarituen irudi eskubideen eta/edo jabetza intelektualaren lagapenaren klausula espezifikokoak ezarri beharko ditu.

Hamaikagarrena. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta horietatik eratortzen diren administrazio egintza guztiak APAPELek eta aplikatzeko den gainerako araudiak ezarritako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango dira.